

AUTOKARABANEN TURISMOA ARABAN



alava
turismo.
eus

araba
álava




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabara bisitan datozen pertsonek esperientzia sekulakoak eta ezin ahaztuzkoak biziko dituzte. Esaterako, gatz haran batean barneratzea, oinez nahiz bizikletan ibilaldiak egitea Arabako natura emankorraz inguratuta, museo originalak eta ondare oparoa ikustea, edo munduko ardo onenatarikoak dastatzea mendeak dituzten upategietan.

Gida honek informazio erabilgarri eta praktikoa jartzen du eskura autokarabanan esperientzia horiek bizi eta Arabako Lurralde Historikoa ezagutzeko.

Ongi etorri.





AUTOKARABANENTZAKO
GUNEAk ARABAN



HELBIDEA

Behe Nafarroa kalea z.g. (Salvatierra-Agurain)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.85333 / -2.38528

Hirurogeitarra: N 42° 51' 12" / W 02° 23' 7"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 7

Tarifa: doan


Harremanetarako: www.agurain.eus / 945 302 931

Gehieneko egonaldia 48 ordukoa da



DESKRIBAPEN LABURRA

Supermerkatu baten eta umeen jolastoki baten ondoan dago gunea, auzo berri batean. Oinez 5 minutuko bidea dago hirigune historikoraino, eta bertan hainbat zerbitzu daude. Hiriak baditu botika, banku bulegoak, zenbait jatetxe, ostalaritzako beste lokal batzuk eta saltokiak.



Derrigor ikusi behar duzue Aguraingo Erdi Aroko hiribildua. Eskualdeko gaztandegiren bat ikustera joan eta Idiazabal gaztaren sekretuak deskubritzea, edo mendi ibilia egitea Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko ingurumena ezagutzeko zentrotik abiatuta, Araiako herritik: horiek ere proposamen interesgarriak dira.

Hona beste aukera batzuk: Sorginetzeko trikuharria, Henaioko kastro zelta (Brontze Aroaren amaierakoa), Gazeon dagoen San Martin Toursekoaren eliza erromaniko txikia eta bertako horma pintura bikainak, XIV. mendekoak, edota Alaizako pintura gorrixkak.





HELBIDEA

Araba Kalea, 7
(Amurrio)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 43.05528 / -2.99806
Hirurogeitarra: N 43° 3' 19" / W 02° 59' 53"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 3
Tarifa: doan
Harremanetarako: www.amurrio.org / 945 393 704
Gehieneko egonaldia 48 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Saltokiak eta zerbitzuak: karabanentzako gunea antzokiaren atzean dago, hirigunean. Amurriok baditu botikak, banku bulegoak, zenbait jatetxe, eta ostalaritzako lokal eta saltoki ugari.





Handik hurbil-hurbil zain daukazue Kexaako monumentu multzoa. Bertan izan zuen egoitza Erdi Aroan Araban eta Euskal Herri osoan izandako pertsonaia ospetsuenetako batek, Pedro Lopez Aiarakoak. Txakolinaren Ibilbidea egitera ere gonbidatzen zaituztegu, eskualdean ardo zuri preziatu hori egiten duten upategietako batzuk ikusteko.



Gainera, Gorobel mendilerroak mendi ibiliak egiteko aukera eskaintzen dizue eta Euskadiko paisaiarik ikusgarrienetakoak ezagutzeko. Naturan ibiltzea gogoko dutenentzako aparteko plana da Delikako herritik abiatzen diren bidexketan zehar Nerbio ibaiaren jauzira iristea, ia 300 metro dituen ur-jauzira.



HELBIDEA

La Barcena (kirol zona)
Artziniega



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 43.118252 / -3.130714
Hirurogeitarra: N 43° 07' 05.7" / W 3° 07' 50.6"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 6
Tarifa: Argindarra 3€/12 ordu
Fitxak udalerriko saltokietan, ostalaritza establezimenduetan eta turismo informazio gunean (Museo Etnografikoa) eskura daitezke.
Harremanetarako: turismo informazio gunea (Museo Etnografikoa)
turismo.artziniega@hotmail.com / 945 396 210
Baimendutako gehieneko egonaldia 72 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Gunea kiroldegiaren aparkalekuan dago. Bertan 6 plaza gorde dira autokarabanetarako. Artziniegan hainbat jatetxe, taberna eta saltoki dago.





Arabako herri polit hau merkataritza gune garrantzitsua izan zen Erdi Aroan eta horren lekuko dira Ortiz de Molinillo de Velascoren dorrea (XVI. mendea), Valle etxetzarra (XVII. mendea), Bengoa dorrea (XVII. mendea) eta Ama Agustindarren komentua (XVI. mendea).

Altxorretako bat Museo Etnografikoa da, 3.700 m²ko espazioa, Artziniegako eta eskualdeko bizimodua nolakoa zen erakusten duena. Hainbat jarduera antolatzen ditu: Museo Bizia, Txarriboda, udako solstizioa, etab.



Herrigunetik kanpo, gomendatzen ditugu Arteko Andre Mariaren Santutegia, non XV. mendeko erretaula nagusia eta ehun urtetik gorako artea ikus ditzakegun, eta Santxotena Museo-Tailerra, non Oteizaren ikasle izan zen Xabier Santxotena eskultorearen lana erakusten den.

Artziniegan oinez, bizikletaz edo zaldiz ibiltzeko ibilbideak daude eta udan, igerilekua. Ekitaldiak: Antzinako Azoka (irailaren hirugarren larunbata) eta jaiak (irailaren 8an).



HELBIDEA

Barrihuelo Kalea, 3 (Eltziego)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.515 / -2.61528

Hirurogeitarra: N 42° 30' 54" / W 02° 36' 55"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 14

Tarifa: doan, eta argindarra 2 euro


Harremanetarako: www.elciego.es/ 945 606 632

Baimendutako gehieneko egonaldia 72 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Hirigunea 300 metro ingurura dago, eta bertan daude zerbitzu guztiak: botika, banku bulegoak, jatetxeak (horietako batek Michelin izar bat dauka), ostalaritzako lokalak eta saltokiak.

A person with a backpack is seen from behind, looking out over a valley. The foreground is filled with green and yellow foliage. In the distance, there are mountains and a valley floor covered in trees. The sky is clear and bright.

Eltziegoko Erdi Aroko hiribildua mahastiz inguratuta dago. Frank Gehryk Marqués de Riscal ardogilearentzat diseinatutako upategiaren silueta nabarmentzen da, titanioz egina. Beste proposamen erakargarri batzuk: eskualde honetako ehunka urteko zuloak ezagutzea, mahasti artean jarduerak egitea eta ardoterapia saioetan erlaxatzea.

**HELBIDEA**

Fray Domingo Salazar, 21 (Bastida)

**GPS KOORDENATUAK**

Hamartarra: 42.58806 / -2.79583

Hirurogeitarra: N 42° 35' 17" / W 2° 47' 45"

**DESKRIBAPEN LABURRA**

Plaza kopurua: 4

Tarifa: doan, eta argindarra 2 euro orduko

Harremanetarako: www.labastida-bastida.org

945 331 818

Gehieneko egonaldia 48 ordukoa da

**SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK**

Hirigunean aurkitzen dira. Badaude botika, bankuak, zenbait jatetxe, ostalaritzako beste lokal batzuk eta saltokiak.



Bastidan miretsi egingo duzue Erdi Aroko hirigune historiko dotorea. Monumentu multzo izendatuta dago. Leku hauek bisitatzera gomendatzen dizuegu: upategiak, harriaz zulatutako dolareak, Kristo Santuaren basiliza, Jasokundeko Andra Mariaren parrokia eta San Gineseko parke naturala.

Gainera, badituzue hainbat ibilbide. Hauen artean nabarmentzen da Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea (GR-38), ezin aproposagoa zidor zaleentzat. Mendeetan zehar mandazainak ibili izan zuten hango bideetatik, Arabako Errioxako ardo gozoa iparraldera eraman eta bueltan Bizkaiko portuetako arrain gazitua ekartzen.





HELBIDEA

A-3632 errepidea, 52+270 pk
Laudio



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 43.153891 / -2.976211
Hirurogeitarra: N 43° 09' 14.0" / W 2° 58' 34.4"




DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 14
Tarifa: Gaua igarotzea doakoa da. Zerbitzuak: 2 €
Harremanetarako: oficinadeturismo@laudio.eus /
944 034 930 Baimendutako gehieneko egonaldia
72 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Gunea Ellakuriko kirol gunearen ondoan dago. Laudio Arabako bigarren udalerrri jendetsuena da eta hiri batean egoten diren zerbitzu publiko eta saltokiak dauzka.



Laudion ikustekoak diren hainbat jauregi dago, hala nola, Katuxakoa (XVIII. mendea), Ugartetarren dorretxea (XV. mendea) edo Anuntzibaikoa. Gainera, gomendagarria da Lamuzako parketik ibilaldia egitea eta ikustea Urkixoko markesek XX. mendearen hasieran egindako eraikinak, Kasinoa eta ontziralekua, eta handik hurbil dagoen Ermuko Andra Mariaren santutegia ikustera joatea.

Laudio inguruan, gainera, aire zabaleko hainbat jarduera egin daitezke: birding, arroila jaitsierak, zaldi ibilbideak, hegaldiak globoan edo markatutako bideetatik mendi ibilaldiak. Hona hemen bi proposamen: "burdinazko gerrikoa", kultura eta ingurumen balioa duen ibilbide borobila, eta Nerbioiko Parke Linealaren ibilbide berdea, Laudio eta Amurrio lotzen dituena eta bai oinez bai bizikletaz egin daitekeena.





HELBIDEA

Langraiz etorbidea z/g
Langraiz Oka (Arrateko kiroldegiaren alboan)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.819429/ -2.798321
Hirurogeitarra: N 42° 49' 09.9" / W 2° 47' 54.0"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 12
Tarifa: doan
Harremanetarako: www.irunadeoca.com / 945 371 064
Gehieneko egonaldia: 72 ordu



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Jatetxe zerbitzuak eta saltokiak Langraizen daude, 300 metrora, gutxi gorabehera. Gainera, botika eta banketxeak ere badaude.





Langraiz Oka N-1 errepidearen alboan dago eta bertako autokarabanen gunea aparteko abiapuntua da Arabako paisaiaren, naturaren eta kulturaren alderdi erakargarrienak ezagutzeko: Santa Katalina lorategi botanikoa, Tresponden. XIII. mendeko monasterio baten birgaitutako aurriek eta bost kontinenteetatik ekarritako mila espezieek Erdi Aroko historia eta ingurumen balioa uztartzen dituzte.



Iruña-Veleiako errromatar aztarnategia, Billoda. Monumentu multzo izendatua, 16 dorreren eta hiriko hegoaldeko atearen zimenduak ikus daitezke bai eta azoka publikoaren, etxebizitzaren eta harresiaren aztarnak ere. Gatz Harana, Gesaltza Añanan, munduko arkitektura, paisaia eta historia multzo berezietakoa, non gatza ekoizten jarraitzen den. Gainera, inguruan natura gune garrantzitsuak daude: Badaia mendilerroa, Arkamoko mendilerroa, Zadorra ibaia edo Gasteizko mendiak.



HELBIDEA

Helbidea: La Espina kalea z.g. (Oion)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.50917 / -2.44194

Hirurogeitarra: N 42° 30' 33" / W 02° 26' 31"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 12

Tarifa: doan.

Harremanetarako: www.ayuntamientodeoyon.com

945 622 190

Baimendutako gehieneko egonaldia 72 ordukoa da.

Hirigune historikoa 500 bat metrora dago



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Hirigune historikoa autokarabanentzako gunetik 500 bat metrora dago. Oionen badaude botika, banku bulegoak, zenbait jatetxe, ostalaritzako beste lokal batzuk eta saltokiak.





-Hiribildua mugarri garrantzitsua izan zen Donejakue Bideko lehen ibilbidean, eta interes historiko handiko jauretxeak kontserbatu ditu. Begiratu Andra Maria elizaren dorre barrokoari. Goian daukan irudiari "La Giralda" esaten diote. Erdi Aroko upategiak bisitatu ahal izango dituzue, edo Ardoaren Ibilbideak antolatzen dituen jardueretan parte hartu; adibidez, GR 38ko tarte bat egin, beste aukera batzuen artean.





HELBIDEA

Urizarra Hiribidea, 23 (Peñacerrada-Urizarra)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.64333 / -2.71194

Hirurogeitarra: N 42° 38' 36" / W 02° 42' 43"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 8

Tarifa: doan

Harremanetarako: www.penacerrada-urizarra.com

945 367 004

Baimendutako gehieneko egonaldia 48 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Gunea herritik metro gutxira dago.
Herrian okindegi bat eta jatetxe bat
aurkituko dituzue.



Erdi Aroko hiribildu honetako barruti harresidunak gaurdaino iraun du. Barruti horretan ate bikain bat nabarmendu behar dugu, Hegoaldeko Atea. Mendi ibilbide ugari egiteko aukera duzue. Aire zabaleko etnografia museoa ikus dezakezue, edo San Leoneko kobazulo naturalak bisitatu.



HELBIDEA

El Egido kalea 2 (Santikurutze Kanpezu)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.67278 / -2.34417

Hirurogeitarra: N 42° 40' 22" / W 02° 20' 39"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 14

Tarifa: 3 euro egunean

Harremanetarako: www.campezo.eus

Baimendutako gehieneko egonaldia 72 ordukoa da



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Santikurutze Kanpezuko herria metro gutxira dago eta baditu botika, banku bulegoak, jatetxeak, ostalaritzako beste lokal batzuk eta saltokiak.



Santikurutze Kanpezun gomendatzen dizuegu Andra Mariaren Jasokundearen parrokia eliza ikustea. EAEko monumentu historiko izendatuta dago. Hiriaren goialdean Ibernaloko Andra Mariaren basiliza dago, eta handik ikuspegi zoragarria duzue. Kanpoaldean, berriz, Pierolako Done Joan komentuaren hondarrak aurkituko dituzue. Beste plan on bat izan daiteke, batez ere umeekin bidaiatzen baduzue, arrantzarako Nusi aintziran amuarrainak harrapatzea. Bertan alokatuko dizuete beharrezko material guztia. Antoñanako hiribilduan, EAEko monumentu nazionala da, Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdeko interpretazio zentroa topatuko duzue eta bertan Arabako Mendialdeko eskualdeari buruzko informazio orokorra emango dizuete: historia, egin daitezkeen jarduerak, bisitatzeko lekuak, ostatu eta jatetxeak, mendi ibilbideak, eskalada, ibilaldiak zaldiz edo mendiko bizikletaz, eta abar.





HELBIDEA

Forondako Atea 48 (Vitoria-Gasteiz)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.86667 / -2.68528

Hirurogeitarra: N 42° 52' 0" / W 2° 41' 7"



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 40

Tarifa: doan

Harremanetarako: www.vitoria-gasteiz.org

34 945 161 598

Gehieneko egonaldia, 72 ordu. Autokarabanentzako aparkalekutik oso hurbil tranbiaren geraleku bat daukazue, eta tranbiak hiriko erdialderaino eramango zaituzte. Tranbia goizeko 6etatik 23:00ak arte dabil, 7-10 minuturik behin.



SALTOKIAK ETA ZERBITZUAK

Gasteizen ostalaritzako mota guztietako hainbat establezimendu aurkituko dituzue; besteak beste, pintxo taberna asko eta Michelin izarra duen jatetxe bat. Bertako saltokiak bisitatzea gomendatzen dizuegu, xarma handia dute eta.

Hirigune historikoak almendra forma bitxia du. Bertan Santa Maria katedrala ezagutu behar zenukete hango bisita programa original eta sarituaren bitartez; tenplua inguratzen duten



Erdi Aroko kaleak ibili, antzinako gremioen izenak dituztenak (Aiztogile kalea, Pintore kalea, Errementari kalea eta abar); eta, jakina, gastronomia gozo-gozoa dastatu. Gomendatzen dizuegu, era berean, Gasteizko Eratzun Berdean barneratzea. Hiri osoa inguratzen duen gerriko berde bat da, oinez edo bizikletan ibil daitekeen 6 parkek osatua.



**ESKURA DITUZUN BESTE
BALIABIDE BATZUK**



HELBIDEA

Betxinaburu kalea 2 (Legutio)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.96889 / -2.64806

Hirurogeitarra: N 42°58'09/ W 2°38'54



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 5

Tarifa: doan

Gehienez 5 autokarabanarentzako lekua dago.

Ez dago zerbitzurik, baina badaude piknik mahai batzuk eta barbakoa. Berariaz debekatuta dago kanpatzea.

Saltokiak eta zerbitzuak: Jatetxe zerbitzuak eta saltokiak Legution daude, kilometro batera, gutxi gorabehera.

Zadorra ibaiko urtegiak Gasteiztik 35 bat kilometrora daude. Edertasun bereziko lekuak dira, eta aberastasun ekologiko handia dute.

Bertan aurkitzen dute babeslekua hegazti urtar askok, esaterako koartza gorriak edo ipar ahateak. Ibilaldiak egin ahalko dituzue oinez eta bizikletaz, bai eta bestelako jarduera batzuk ere.





HELBIDEA

Garaioko Probintzia Parkea z.g.



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.909489600/ --2.5400975

Hirurogeitarra: N 42°54'08/ W 2°32'25



DESKRIBAPEN LABURRA

Plaza kopurua: 25

Tarifa: doan

Parkearen barruan dagoen aparkalekua da.

Debekatuta dago ematea.

Garaioko parkea Uribarri Ganboako urtegiaren uretan barneratzen den penintsula bat da. Hainbat bidezidor ditu oinez paseatzeko edo bizikletaz ibiltzeko. Mendixurko Parke Ornitologikora ere inguratu zaitezke.

Harremanetarako: www.alava.net/EmbalseUllibarri
695 782 498 (parkeko informazio bulegoa).





EL ROBLE VERDE KANPINA



HELBIDEA

Nuvillako herria. Pobestik Argantzona doan A-3322 errepideko 24. kilometroa



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.7951732/ -2.8794413
Hirurogeitarra: N 42°50'53/ W 3°05'53



DESKRIBAPEN LABURRA

la instalazio guztiak mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta daude. Beste zerbitzu batzuen artean, igerileku klimatizaturia, taberna eta jatetxea dituzte. Maskotak onartzen dituzte eta deskontuak egiten dituzte zaldi gaineko paseoetan eta beste hainbat jardueratan.

Harremanetarako: www.campingelrobleverde.com
945 06 33 50

IBAIA KANPINA



HELBIDEA

102 errepide nazionala z.g., Zuhatzu Gasteiz



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.848282200/ -2.732627400
Hirurogeitarra: N 42°49'52./ W 2°43'21



DESKRIBAPEN LABURRA

Kanpin hau Gasteizen dago, eta 65 partzela ditu, guztira 265 pertsonarentzako lekua. Baditu arropa garbigailua, lehorgailua, zaborren bilketa eta birziklapena, taberna, jatetxea, supermerkatua, garraio publikoa eta wifia. Karabana eta autokarabanentzako tarifa bereziak dituzte.

Harremanetarako: www.campingibaia.com
627 07 43 99

ANGOSTOKO KANPINA



HELBIDEA

Villanañeko errepidea, 2 bis. (Villanañe)



GPS KOORDENATUAK

Hamartarra: 42.842348 / -3,068418
Hirurogeitarra: N 42°50'33 / W 3°04'08



DESKRIBAPEN LABURRA

Kanpinean badituzte arropa-garbigailuak, lehorgailua, ikuztegiak, dutxak, igerileku klimatizatua, supermerkatua, eta, beste zerbitzu batzuen artean, jatetxea, taberna eta sauna. Baronatarren Erdi Aroko dorretxetik, Gatz Haranetik eta Valderejoko parke naturaletik oso hurbil dago.

Harremanetarako: www.camping-angosto.com
945 35 32 71



**ARGIBIDE
PRAKTIKOAK**



GASTEIZKO UDALAREN TURISMO BULEGOA

www.turismo.vitoria-gasteiz.org / 945 16 15 98

AMURRIOKO TURISMO BULEGOA

www.amurrio.org / 945 39 37 04

ARTZINIEGAKO TURISMO BULEGOA

945 39 62 10

GAUBEAKO TURISMO BULEGOA

www.valdegovia.com / 945 35 30 40

AÑANAKO ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA

www.cuadrilladeanana.es / 945 35 13 86

ARABAKO MENDIALDEKO ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA

945 41 05 77

BASTIDAKO TURISMO BULEGOA

www.labastida-bastida.org / 945 33 10 15

GUARDIAKO TURISMO BULEGOA

www.laguardia-alava.com / 945 60 08 45

ELTZIEGOKO TURISMO BULEGOA

www.elciego.es / 945 60 66 32




ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAREN TURISMO BULEGOA

www.cuadrillasalvatierra.org / 945 30 29 31

GORBEIALDEKO ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA

www.gorbeialdekokuadrilla.eus / 945 43 04 40

WWW.ALAVATURISMO.EUS





alava
turismo.
eus

araba ✓
álava



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶